

Eliza eta Irakaskuntza Euskal Herrian.

IRAKASKUNTZA PRIBATUAREN ALDE (2)

ELIZAREN AUKERA: IRAKASKUNTZA PRIBATUA

Irakaskuntzaren filosofia orokor baten barruan, gutun pastoralaren eskema nagusia bi ardatz hauen gainean pentsatuta dago: Irakaskuntza "librea" eta irakaskuntza estatala.

Gutunak ez du ia sekula "eskola pribatua" esaten, eta bai "eskola librea" edo "ez-estatala". Honetaz hurrengo batetan mintzatuko gara zehazkiago. Hala ere, zera esan nahi dut hemen: Nahiz eta eskola librearen teoria orokorra egin gutun pastoralak, gehienbat gogoan daukana eta aztertzen duena "kristau eskola" da. Honi buruz teologia luzea egiten du gutun pastoralak. Eta ez da harritzekoa, apezpikuen eskuetatik datorrenez eta batez ere kristautzat zuzendua denez.

Eliza, beraz, irakaskuntza pribatuaren alde agertzen da. Areago, horrexeren defentsa da gehienbat Euskal Herriko apezpikuen gutun hau. Zalantzarik ez, ondo konturatuta daude gaurko joera bizi bat, indar politikoen eta kulturazkoen aldetik, bestetara doala: hau da, eskola publikoaren aldekoa eta pribatuaren kontrakoa dela.

Euskal Herriko Elizak, eztabaida horren barnean, argi eta garbi agertu du bere pentsaera eta bere aukera: Eskola "librearena". Honen aldeko teoria luzea egiten dute apezpikuek; baina azkenik, ez ote da aukera praktiko eta historiko bat?



Dena dela, teoria horren oinharrian eta aukera praktikoaren funtsean hutsune bat nabarmentzen da, gutun pastoral osoari nabari zaion hutsune berbera: datu soziologikoena. Zenbat eskola pribatu (Elizarenak edo besterenak), zenbat ikastola, zenbat eskola estatalt dagoen Euskal Herrian; horietako bakoitzak zein indar duen, zenbat ikasle, etab. Guzti hau izan behar genuke gogoan, Euskal Herriko Elizak edo bestelako edozein erakundek eskolari edo irakaskuntzari buruz egiten duen teoria eta hartzen duen jarrera ikustean.

KRISTAU ESKOLA?

Apezpikuek gaurko gizartearen haniztasuna onhartzeko dute; areago, gutun pastoralaren oinharri bezala jartzen dute. Irakaskuntzaren demokratikotasuna, pluralismo horretan mamitzen da, hain zuzen ere, gaurregun. Eta bide horretatik abiatzen dira gogoz apezpikuek.

Bestalde, irakaskuntza estatalistaren eta zentralistaren kontra agertzen da dokumentu hau. Alde horretatik, "nazional-katolikismoa" eta horrek ezarri duen irakaskuntz politika eta ideologia ukatzen ditu. Beraz, esan daiteke esan, joera irekia —ia progresista— nabari duela apezpikuen gutunak...



... Baina batez ere eskola pribatuari buruz diotenari, arrazoinaketa tradizionala dario. Eta alde horretatik, demokraziak berak eskatzen duen erreformismo mailan gelditzen da Apezpikuen pentsakera osoa.

Oinharri-oinharrian ez da eztabaidatzen Elizak gizarte berrian izan behar duen —edo izango duen— lekua eta egitekoa. Oraindik ere “kristau eskola” da kontzeptu nagusia: horrek bere kontzistentzia, bere autonomia luke gure gizarte pluralista honetan.

Baina “kristau eskolak” ez ote digu gogorazten aspaldiko beste formulazio haik, aspalditik hain zalantzapetan jarriak: “kristau alderdia”, “kristau sindikatua”, “kristau kultura”, “kristau filosofia”?

Elizak gizarte pluralista, sekulartu eta demokratiko honetan izan behar duen tokiaren eta egitekoaren arazoa aztertu, eztabaidatu eta argitu behar da, “kristau eskolari” buruzko galderari erantzuteko.

Horregatik niri galdera zorrotz bat geratzen zait, gutun pastoralara irakurri ondoren: “Kristau eskola” bai?

Paulo Agirrebaltzategi

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako	1.000 pezeta
Latin Amerikarako	1.150 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	1.300 pezeta

Ale bakoltza: 50 pezeta

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel